



6) BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Egungo aro digitalean, ikasleekiko konexio eraginkorra ohiko metodoetatik haratago doa. IkasMatch-ek, hezkuntza-orientazioko gure aplikazio berritzaileak, XXI. mendeko belaunaldira modu pertsonalizatuan iristeko kanalen estrategia integral bat hartzen du. Ikuspegi estrategiko honek hainbat **komunikazio-plataforma** eta tresna aprobetxatzea du helburu, IkasMatch herrialdeko txoko guztietan ikasleentzat eskuragarria izan dadin. Jarraian, gure bezero nagusiarekin (ikasleekin) lotura eta konpromisoa bultzatzeko diseinatutako **kanal-estrategia** honen funtsezko alderdiak aztertuko ditugu.

Alde batetik, komunikaziozko kanalei dagokienez, **publizitatea** izango da erabiliko dugun bide nagusia. **Sare sozialak** erabiliko ditugu, hala nola, Instagram, TikTok edo Twitter, izan ere gure merkatu segmentuak gehien erabiltzen dituen aplikazioak direla uste dugulako. Bertan, aplikazioaren eguneraketak, erabiltzaileen esperientziak eta promozioak partekatuko ditugu. Twitterren, gehienbat, hezkuntzarekin eta orientazioarekin lotutako hashtag ezagunak erabiliko ditugu gure irismena zabaltzeko eta Tiktoken IkasMatch-en ezaugarriak nabarmentzen dituzten bideo laburrak sortuko ditugu. Horretaz gain, **zuzeneko transmisioak** egitea ere gustatuko litzaiguke, denbora errealean gure entzuleekin elkarreragiteko eta galderak erantzuteko.



Bestalde, gure bezeroengana iristeko **web orrialde** bat sortu dugu, guk ematen dugun zerbitzuari buruzko informazioa emateko. Gure webguneko atal bat eskaini dugu IkasMatch-en ezaugarriak eta funtsezko onurak nabarmentzeko eta bertan erabiltzaile desberdinen **testigantzak** gehitu ditugu bezero berriei konfidantza transmititzeko. Web orrialde honetan gurekin kontaktuan jartzeko informazioa gehitu dugu eta **aplikazioa jaisteko esteka zuzena** ezarri dugu. Web-orriak zuzenean, izena emateko formulario bat izango du. Horrek erraztu egingo du erabiltzaile interesdunak zuzenean erregistratzea.

Bestalde, aurrerago webgunera **blog** bat gehitzea ere pentsatu dugu. Hezkuntza-educia, orientazio-aholkuak eta IkasMatch-i buruzko eguneratzeak argitaratuko lukeena.




Bestetik, aplikazioan saioa hasten duen erabiltzaile bakoitzari notifikazioak jasotea



nahi duen ala ez galdetuko zaio. Bide hau jarraituz, publizitatea modu errazagoan iritsiko zaie eta IkasMatchek dituen eguneratze guztiak eskura izango dituzte. Haien **posta elektronikoez** baliatuko gara iragarki hauek bidaltzeko.

Orokorrean beraz **kanal propioak** erabiliko ditugu. Guzti hau pertzepziorako ezinbestekoa izango da, bezeroek gure existentziaz jabetzeko.

Banaketa kanalei eta salmenta kanalei dagokienez, **JavaScript eta React** izeneko teknologiak erabiliko ditugunez, aplikazioa Android eta iOS mugikorrenzako eskuragarri egongo da. Hori dela eta, **App Store eta Google Play** erabiliko ditugu banaketa kanal gisa.



Gure aplikazioa App Store-ra igotzeko urrats hauek jarraituko ditugu: **Apple Developer Program**-en izena eman ondoren aplikazioa Appleren estandar zorrotzen arabera eraikitzeko, “archivo.ipa” bat sortuko dugu eta iTunes Connect bidez bidaliko dugu aplikazioa berrius diezaguten. Behin onartuta, IkasMatch App Store-ren parte izango da eta iOS erabiltzaileentzat eskuragarri egongo da.

Google Playri dagokionez, **Google Play Console**-n garatzaile-kontu bat sortu ondoren, aplikazioa prestatu, digitalki sinatu eta “archivo.apk” bat sortuko dugu. Fitxategi hau Google Play Console-ra igoko dugu, aplikazioaren informazioa konfiguratuko dugu eta berriuspenaren zain itzarongo gara. Behin onartuta, IkasMatch eskuragarri egongo da Google Playko Androiden erabiltzaileen komunitatearentzat.

Bestalde, aplikazioa IkasMatch-en webgune ofizialetik zuzenean deskargatzeko aukera ere eskainiko dugu, aplikazioen dendak ez erabiltzea nahiago dutenentzat beste aukera bat eskainiz.

- Publizitate adibideak:



DESKARGATU GURE APP BERRIA

IKASMATCH

- 1 Jaitsi aplikazioa
- 2 Saioa hasi eta nahi duzun zerbitzua bilatu
- 3 Jarri harremanetan nahi duzun ikaslearekin!



IKASMATCH
FIND YOUR PATH

FIND YOUR PATH!

Zure etorkizuna, zure aukera, gure konpromisoa: ezagutu IkasMatch.

JAITSI ORAIN

- Gure webgunea: www.ikasmatch.com